

Markina-Xemeingo ikastetxean bertako jantokia martxan

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Eusko Jaurlaritzak eskola publikoko jantokiaren kudeaketa tokiko guraso elkartearen esku uzten duen lau proiektu pilotuetan lehena izan da Bekobenta, apirilaren 4an martxan jarria. 280 haurri emango dio jaten eta Oizpe Guraso Elkarteak bertako produktuak erostea hartu du oinarri.

Bertakoa, sasoikoa, ekologikoa

Fruta ez beste guztia 0 km. filosofiaz eta ahal dena ekologikoan erosten dute. Barazkien %75 Lea-Artibaiko bost base-ritarrek hornitzen diete, dena ekologikoan. Lekariak Arabatik ekartzen dituzte, agroekologikoak. Olinoa Nafarroakoa erabiltzen dute. Haragiak eta arrautza Euskolabelduna. Azkenburukoak bertan egiten dituzte, jogurtak, esaterako, bertako baserriar batek produkzio integrarean egindako esnea eta lacto-bifidusa erabiliz.

Halal menua

Menu musulmana eskaintzen ere lehenak dira. Hamar haurrek jaten dute berau. Produktuak erosteko irabazi duten eskumena baliatu du guraso elkarteak



LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

musulmanen ohiturei jarraitzen dien haragia erosi eta Halal menua eskaintzeko.

Ez da garestiagoa

Otorduko 4,6 euro ordainduko dute gurasoek bertako produktu ekologikoak zerbitzatzen dituen jantokia. EAeko gainerako ikastetxeetan, catering sistemen bidez jaten denaren kopuru berbera.

Langileak

Proiektu pilotu honetan Eusko Jaurlaritzak beregain hartu du sukaldarien soldata. Begiraleak eta garbitzaileak kontratatzea, aldiz, guraso elkartearen esku dago, eta aurreko catering enpresari azpikontratatu dizkiete bi zerbitzu hauek.

LOMCEk aurreikusitako azterketak, bertan behera

Ane Urkola Agirrezabala

@lrrrikaz

Espainiako Kongresuko osoko bilkurak onartu egin du LOMCEk ezarritako ziklo amaieretako azterketen egutegia bertan behera uztea, PSOEren lege proposamen bat aintzat hartuta. 186 diputatuk bozkatu dute alde, 112k aurka eta 41 abstenitu egin dira. Lehen Hezkuntza bukaerako proba bertan behera utziko luke lege aldaketak; DBH eta Batxilergo amaierako azterketak ere etengo lituzke –Espainiako Gobernuak ez du onartu horiek arautzen dituen dekreturik–. Espainiako Gobernuak osatu ezean, eta

hauteskundeak errepikatu behar izanez gero, ez litzateke aldaketa gauzatuko.

PSOeri kritika

Hainbat kritika jaso du Espainiako Alderdi Sozialistak. Izan ere, pasa den legealdian LOMCEren indargabetzea babestu zuen PSOEek. Orain, ordea, egutegia etetea eskatzera mugatu da, Ciudadanosekin egindako akordioa dela-eta.

Sozialistek, bere aldetik, adierazi dute “akordio politikoan eta sozialean” oinarritutako hezkuntza proiektua jartzeko lantaldea osatuko dutela Ciudadanosekin batera.

EKONOMIAREN TALAIAN

Elite ekonomikoen eskuetan



Juan Mari Arregi

AEBetako Gobernuak hartzen dituen erabaki politikoen %45 herrialde hartako elite ekonomikoen mesedetan dira; aldiz, oligarkiaren kontra %18 baino ez dira. Hori salatu dute bi estatubatuar akademiko garrantzitsuk egin berri duten ikerketa batean. Diotenez, “eliteek eta interes talde ekonomikoek AEBetako Gobernuaren politiketan eragin funtsezkoa dute; klase ertaineko herritarrek eta masa interes taldeek berriz, sindikatuek esaterako, eragin askoz txikiagoa edo hutsala dute”. Ondorioa da AEBetako demokrazia elite ekonomikoen eskuetan dagoela.

AEBei buruz diotena Europan eta Espainiako nahiz Frantziako estatuetan ere erabili daiteke, indar handiagoz gainera, baita Euskal Herrian ere. Lobbyek eta elite ekonomikoek finkatzen dituzte gobernuen politikak. Euskal Autonomia Erkidegoko adibidea ikus dezakegu. ELAk joan den astean Eusko Jaurlaritzara salatu du, Confebask patronalaren praktikak babesten dituelako. Patronala “estatalizazioa” ari da sustatzen, hau da, EAEn ari da estatuko hitzarmenak ezartzen, lan baldintzak are gehiago pobretuz. Euskal Herri mailako negozio kolektiboa ezabatu nahi da horrela, baita lan harremanetarako euskal markoa ere. Eta Eusko Jaurlaritzak praktika hori babesten du, sindikatu abertzalearen arabera.

Orain gutxioko beste adibide bat: Panamako paperak. Paradisu fiskal horiek existitzen dira elite ekonomikoek gobernuak baldintzatzen dituztelako. Gobernuak iruzurra eragotzi eta deuseztatu dezakete, baina ez dute nahi eliteek ez dietelako uzten.

Elite ekonomikoen eskuetan gaudela erakusten duten bi adibide baino ez dira. Hautestontzietan aukeratuak izan ez direnen eskuetan dagoen demokrazia faltsua da gurea.